

BALOREZKO PROPOSAMENAK

XXI. mendeko mundua etengabe aldatzen ari da, eta horregatik aldaketa horiei moldatzen diren irtenbideak eskaintzea funtsezkoa da. Moldatzeko gaitasun hau ezinbestekoa da bizitzaren hainbat arlotan, bereziki gizartean, aldaketak askoz nabariagoak direlako. Migrazio-mugimenduak eta langabezia-tasa altuak adibide argiak dira. Alde batetik, gizarte eta ingurumen-arazoek pertsonak bultzatzen dituzte beraien bizilekutik beste herrialde batzuetara bizitza hobe baten bila, baina askotan errealitate latza eta zaila aurkitzen dute, ez baitira abegi-gizartean onartuak sentitzen. Zorionez, lanean egoteak haien egoera hobetzen du, gizartean barneratzen direlako eta hazteko aukera ematen dielako. Hala ere, lan egiteko gogoak ez dira nahikoak, izan ere, hainbat eragozpen, gehienetan gai burokratikoak, jartzen zaizkie. Ondorioz, noraezean dabilta eta horrek legez kanpoko jarduerak egitera bultzatzen ditu, bandalismoa handituz, besteak beste.

Horregatik, formakuntza egokia eta aurreratua eskainiz, horrelako arazoak murriztea eta etorkinen egoera hobetzea da gure helburu. Bestalde, enpresa honek konpondu nahi duen beste arazo larria langabezia-tasak dira. Datosmacro.com-en arabera, Espainiako langabezia-tasa 2024an %11,2-koa da, Europako altuenetariko bat, Euroguneko herrialdeen batz bestekoa baino %4 altuagoa. Hori kontuan harturik, hainbat langile profesional lanik gabe aurkitzen dira. Horri irtenbide bat emateko, enpresa honek lan-eskaria handituko du, etorkinei formakuntza emateko profesionalak behar dituelako, eta horrela, langile kualifikatu gehiago sartuko dira lan-merkatuan. Langabezian dauden pertsona hauek, beste aldetik, beren ezagutzak gai anitzei buruz irakatsiko dizkiete atzerritarrei, eta horren trukean soldata bat jasoko dute enpresaren aldetik. Aipatutakoaren arabera, bi gizarte-arazo nagusiri irtenbideak ematen zaizkie aldi berean, harri batez bi kolpe eginez.



Langabezia-tasa Espainian 2023ko



Etorkinak Mediterraneo itsasoan

Zerk bereizten gaitu, zergatik enpresek eta Bilboko udalak inbertituko dute gure enpresan?

Etorkinen ongizatea bermatzeko merkatuan enpresa gutxi daude, gainera, laguntza eskaintzen duten gehienak enpresak izan beharrean, erakundeak dira. Enpresak Bilboko udalari inbertitutakoari etekin ekonomikoak aterako dizkio. Hala, udalak hurrengokoetan egin behar dituen ekarpenak gero eta murriztuzkoak izango dira. Alde batetik, lan merkatuan langile gehiago sartuko direnez, langabeei eman beharreko diru-laguntzak murriztuko dira. Bestalde, etorkinek lanean hasterakoan, haien zergen bidez, jasotako formakuntza zerbitzua itzuliko diote udalari.